



Honekin batera, Herri Administrazio eta Justiziako sailburu Josu Erkorekaren **AUDIOA** dago. Adingabeen zentroetara egindako bisitaren **ARGAZKIAK** ikusteko, jo hona:  
<http://www.irekia.euskadi.net/>

Bilbo, 2013ko uztailak 19

## EUSKADIN DELITUA EGITEN DUTEN ADINGABEEN % 85EK EZ DUTE BERRIRO DELITURIK EGITEN JAURLARITZAREN ESKU-HARTZE PSIKOSOZIALAREN ONDOREN

- Josu Erkoreka: «Zifra horrek Eusko Jaurlaritzaren ahalegina eta inbertsioa justifikatzen du, bai eta pertsonetikiko duen konpromisoa ere».
- Honako hau da Euskadin delitua egiten duen pertsonaren profila: 16-17 urteko gizona, Euskadin jaiotakoa, jabetzaren kontrako delituak egiten dituena eta 6 eta 9 hilabete arteko batez besteko neurria betetzen duena.
- Hazi egin dira familia barruko indarkeriako delituak eta koadro psikologiko-psikiatrikoetatik eratorritako indarkeriako delituak. Azken horiek, gainera, larriagoak dira drogen eraginagatik. Egoera hori «kezkarria» da.
- Ez dago itzarote-zerrendarik: jarritako neurrien % 100 betetzen ari dira Euskadin, atzerapenik gabe eta beste autonomia-erkidego batzuetara eramane beharrik izan gabe.

Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justiziako sailburu Josu Erkorekak, Justiziako sailburuorde Ana Agirrek eta Justiziako zuzendari Manuel Valínek adingabeen zentro bat bisitatu dute, adingabeen epaitegiek zigor-neurriak ezarri dizkieten gazteen errealitatea zer-nolakoa den lehen eskutik ezagutzeko. Zentro gehiago ere bisitatuko dituzte.

**2012**an, Euskadiko adingabeen epaitegiek **992 zigor-neurri** ezarri zituzten. Arauhausterik ohikoena **jabetzaren kontrako delituekin** lotuta zegoen: indarrezko eta larderiako lapurretak eta ebasketak, besteak beste.

### 2012 (DELITUAREN ARABERA) (\*)

	Lapurreta indarrez edo larderiak	Lapurreta indarrez	Ebasketa	Lesioak	Kaltea	Familia barruko indarkeria (**)	Genero-indarkeria	Zirkulazio-segurtasunaren kontra	Mehatxua	Tratu txarrak	Irainak	Bestelakoak
<b>MUTILAK</b>	116	83	92	103	77	54	13	20	28	13	12	116
<b>NESKAK</b>	30	5	50	39	2	18	1	1	6	4	6	23
<b>GUZTI RA</b>	<b>146</b>	<b>88</b>	<b>142</b>	<b>142</b>	<b>79</b>	<b>72</b>	<b>14</b>	<b>21</b>	<b>34</b>	<b>17</b>	<b>18</b>	<b>139</b>

(\*) Soilik neurri irmoen zifrak

(\*\*) Ez ditu familia barruko indarkeria-kasu guztiak aintzat hartzen; izan ere, horietako batzuk lesioen, kalteen, mehatxuen, tratu txarren, eta abarren barruan daude.

## ETXEKO INDARKERIA

Familia barruko indarkeriarekin lotutako **delituak gehien hazi direnetakoak dira**. Mutilek egiten dituzte, betik bat, halako delituak (4tik 3k), baina senideen kontra delitua egiten duten nesken kopurua igo egin da.

### 2012 (FAMILIA BARRUKO INDARKERIA) (\*)

	HARTUTAKO NEURRIAK
MUTILAK	102
NESKAK	30
GUZTIRA	132

(\*) Neurri irmoen eta kautelazkoen zifrak

Gehien areagotu den beste delituetako bat koadro psikologiko-psikiatrikoetatik eratorritako indarkeria da. Hori, gainera, larriagoa da substantzia estupefazianteen kontsumoagatik.

## ADINGABE ARAU-HAUSLEAREN PROFILA

Honako hau da Euskadin delitua egiten duen adingabearen profila: 16-17 urteko gizona, Euskal Autonomian Jaiotakoa, jabetzaren kontrako delituak egiten dituena, eta liskarretan moldatzeko zailtasunak dituena, bai eta, batzuetan, jarrerako edo/eta buru-osasuneko arazoak ere. Horiek, askotan, substantzia estupefazianteen kontsumoarekin lotuta daude, eta horrek indartuta. Batez beste 6 eta 9 hilabete arteko zigor-neurria ezartzen zaio.

Nabarmendu behar da 2012an hartutako neurri irmoen ia % 70 Estatuan jaiotako adingabeei ezarri zitzaizkiela. Horietatik, % 90 **Euskadin jaiotakoei** ezarri zitzaizkien.

### 2012 (NAZIONALITATEAREN ARABERA) (\*)

	EAE	ESTATUA	BESTE BAT
MUTILAK	455	50	287
NESKAK	145	23	32
GUZTIRA	600	73	319

(\*) Neurri irmoen eta kautelazkoetako zifrak

## % 85EK EZ DU BERRIRO DELITURIK EGITEN

Euskal Autonomia Erkidegoaren sistema aitzindari batek delitua egin duten adingabeen jarraipena egiten eta ebaluatzen du epaileak jarritako zigor-neurria bete eta hiru urte eta erdiz.

Programaren arabera, bada, **delitua egin duten adingabeen % 85ek ez du berriro deliturik egiten Eusko Jaurlaritzaren esku-hartzearen ondoren**. Justiziako sailburu Josu Erkorekaren aburuz, zifra horrek «justifikatu egiten du Eusko Jaurlaritzaren ahalegina eta inbertsioa, bai eta pertsonetikiko duen konpromisoa ere».

Ildo horretatik, Josu Erkorekak adierazi du bere sailak **15 milioi euro** inguru inbertitzen dituela Gazte Justiziako programetan. Aurrekontu horrek eta baliabiderik ez duten pertsonentzako Doako Justizia finantzatzera bideratzen denak Justizia Zuzendaritzako ia aurrekontu osoa hartzen dute.

### ITXAROTE-ZERRENDARIK EZ

Gainera, Josu Erkoreka pozik agertu da; izan ere, «**adingabekoen epaitegiek ezarritako neurrien % 100 atzerapenik**, itxarote-zerrendarik eta beste autonomia-erkidego batzuetara eraman beharrik izan **gabe betetzen ari dira**».

Eusko Jaurlaritzaren ustez, Gazte Justizia gobernu-ekintzaren ardatz nagusietako bat da, eta bere helburua Euskadi adingabe arau-hausleen gizarteratzean abangoardian egotea da.

### BALIABIDEAK ETA PERTSONAK

Euskadin, Gazte Justiziako **14 hezkuntza-zentro eta -zerbitzu** daude, eta horietan **228** lagunek egiten dute lan.

## 2012 INGURUNE IREKIKO ZENTRO ETA ZERBITZUAK HEZKUNTZA ZENTRO ITXIAK

	BIZKAIA		GIPUZKOA		ARABA	
	Zentroak	Langileak	Zentroak	Langileak	Zentroak	Langileak
<b>INGURUNE IREKIA (*)</b>	2	21	2	12	2	6
<b>ZENTRO ITXIA (**)</b>	2	26	2	83	4	82
<b>GUZTIRA</b>	<b>4</b>	<b>47</b>	<b>4</b>	<b>95</b>	<b>6</b>	<b>88</b>

(\*) Bi mota: Ingurune irekiko zentroak eta eguneko zentroak.  
(\*\*) Hiru mota: 1. mailako zentro 1, 2. mailako 4 zentro eta 3. mailako 3 zentro

### LANTALDE PSIKOSOSIALA

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak lantalde psikosozial bat du. Hori osatzen duten hezleek, psikologoek eta gizarte-langileek adingabea epaitegira eramaten dutenetik lan egiten dute. **Eginkizun bikoitza du:**

- Epaileei eta fiskalei adingabearen gizarte- eta familia-testuinguruari buruzko aholkuak ematea, kasu bakoitza modu pertsonalizatuan ebaluatzeko. 2012an, halako 1625 txosten egin zituen.
- Bitartekaritza-prozesuetan esku hartzea, zigor-neurriak ezartzea saihesteko. 2012an, 384 prozesutan egin zituen bitartekaritza-lanak; horietatik % 90,4 ebatzi ziren.